

464 zenbakia, 2001eko irailaren 14a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Ooo!

San Martinak 2001

Anaie Narbaiza: zuraren garrantzia aztertzen **Kirolak:** barruko igerilekuak astelehenean zabalik



Aukera hau galdu behar duzu ?

Opel Corsa

1.363.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.2 16V 75eko Zaldi Indarreko motorea.
- Gidariarentzako airbag-a.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Segurtasun-gerrikoak pretentsoreekin.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Funtzio anitzeko pantaila.
- Mantenimendu azterketaren adierazlea.
- 30.000 Km-eroko mantenimendua.
- Faro piztuentzako alarma.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.



Opel Astra

1.804.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 84ko Zaldi Indarreko motorea.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.

Opel Zafira

2.643.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Zazpi leku.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko laruzko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.

Opel Vectra

2.450.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Aire girotua.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Goi fidelitateko musika katea.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 10 urteko bermearekin.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1,2,3 aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

* PVP fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Prezioak barne hartzen ditu garraioa, BEZ eta matrikulazio zerga. Prever plana berundun gasolinako autoendako eta promozio-deskontu auto hauetara: Corsa Club 1.2, hiru ate 16V 75hp, pakete elektrikoarekin (3.192 euro), Astra Club 1.6 hiru ate 8V 84hp (10.842 euro), Vectra Comfort 1.6 16V 100hp (14.725 euro) eta Zafira Comfort 1.6 16V 100hp (promozio-deskontubarik) (11.885 euro). Baliozko baldintzak irailaren zehar, izazkinak bukatu arte. Urtea / modelo 2001.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 77 30 10. Zerbitzu ofiziala ARRASATEn



Bide-gorriak

MARTA MORAL

Estresa modan jarri zenetik hona, gure inguruan gertatzen den guzti-guztiak estresatzen gaitu, baita lehen jasaten genituen eguneroko kontuak ere. Egoera hori txartu egiten da oporrak bukatzen direnean: lanean hastea dela, eguneroko kontuetara bueltatzea dela, ikasketak direla... Auto zirkulazioa eta aparkatzeko lekua bilatzea, aurkitu barik, azkeneko zotza ukitzea izan daiteke, eta horrek eragin dezake gu astakirten moduan jokatzea eta lagun hurkoari irain egitea, keinu desatseginak egiten dizkiogun bitartean.

Nik proposamena egingo diot Udalari. Agian, emakumezko zinegotziren baten gogoraz diezadake Bergaran bizi ez naizela eta, horregatik, ez daukadala iritzia emateko eskubiderik. Baina Udalari proposatzen diot bizikletentzat karriak sortzea, jendeak bizikleta erabili

ahal izan dezan alde batetik bestera joateko, bizia arriskuan jarri barik. Era berean, aparkalekuak egitea garraioibide ekologiko horientzat (bizikletentzat); hainbat abantailaren artean, estresa eta gaixotasun koronarioak izateko arriskua gutxitzen lagunduko digu horrek, herriguneko kutsadura gutxitu egingo litzateke... Azken batean, horrek guztiak abantailak baino ez dakartza eta kostu txikia altxor publikoarentzat, zeinaren fondoak, gogorarazi nahi dut, zergadunek ordaintzen dituzten zergekin betetzen diren.

Jabetzen naiz bide-gorriak egitearekin batera herritarrak kontzientziatu beharko lirakeela, duda barik eginkizun zailena. Baina bidea eraiki behar da helburua lortzeko. Bizikletak ez dauka edaderik, eta ez diegu Danimarka, Suitza edo Holanda moduko herrialdeei begiratu behar konturatzeko garraioibide moduan erabil daitekeela; Iparralde, Donostia eta Zarautz, kasu bitxia hura, adibide argia dira, eta konturatzeko gara udalak beharrezko azpiegitura sortzen badu, herritarrek erantzun egiten dutela.

Azken urteetan, aldaketa ugari ikusi izan dugu Bergaran, horietako asko horberako, baina etorkizun ikuspegia pixka bat haratago joan behar da.

Bihur dezagun Bergara herri moderno, gure eta gure ondoren etorriko direnen osasuna zaintzeko baino ez bada.<

«Jabetzen naiz bide-gorriak egitearekin batera herritarrak kontzientziatu beharko lirakeela; eginkizun zailena»



ANAJE NARBAIZA
Ingeniaria

«Etxegintzan aritutako arotzak izan ziren lehengo arkitekto eta konstruktoreak» **6.**



JOSE VICENTE MARAURI
Aize Pe elkarteko presidentea

«San Martiñetako tanborradia gustatzen jat. Hala be, oraindik ez dot sekula parte hartu elkartiakin» **18.**



EDURNE AZUARA
Aktorea

«Errodatzen ari naizen film laburrean Marga naiz, emakume mistiko eta oso poesia zalea» **16.**

hi, gazte!



IKASTAROK

Kazetaritza Digitaleko masterra eta Finantza Merkaturako ikastaroa.

Eusko Ikaskuntzak. Urrutiko ikastaroak. Epea: irailak 30.

Egia.

Antzerkiko ekoizpen, kudeaketa eta banaketari buruzko ikastaroa. Kultura etxean Epea: irailak 27.

JARDUERAK

Abentura.

Getxoko turismo bulegoak kirol ekintza ugari antolatu du Euskal Herriko zenbait naturagunetan. Epea: irailaren 30ean azkenekoa.

SARIAK

Komikia.

Gazteak drogaren aurka lelopeko lanen artean hautatuko da Alcazul Tomelloso sariaren garailea. 14 eta 30 urte arteko gazteendako. Epea: azaroak 2.

Ikus-entzunezkoa.

Eibarko II. Ikus-entzunezko Jaialdia, Plano Corto-k eta Udalak antolatua.

Lehiaketarako sail bakarra: fikzioa, bideo formatuan. Epea: urriak 20.

LANA

Musikako irakaslea.

Hernaniko Udala. Unibertsitateko diplomadun teknikoa, arkitekto teknikoa edo horien baliokidea irakaskuntza ondorioetarako. Epea: irailak 17.

Musika begiralea.

Hernaniko Udala. Eskola graduatua, LH-1 edo baliokidea edukitzea; gainera, bertako musika-tresnen adarrear dagokion gaikuntza.

Uliazpi Fundazioa.

Hainbat lanpostu: Eguneko Osasun Zentrorako arduraduna, gizarte laguntzailea, kudeaketarako teknikaria, programa berezietarako erdi mailako teknikaria, gizarte graduatua. Lehiaketa. Epea: irailak 17.

Gerentea.

Sakanako Mankomunitatea. Enpresa-zientziak, ekonomikoak edo zuzenbidea. Epea: irailak 19.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke **Gazte Informazio Gunera** igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-**ei** nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elempuru



Lior-laban

Lehor eta laban dagoen lekua (aldapan ia beti).

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 6, eguena	22 °C	10 °C	5,5 l/m ²
Irailak 7, egubakoitza	20 °C	12 °C	3 l/m ²
Irailak 8, zapatua	20 °C	13 °C	0,2 l/m ²
Irailak 9, domeka	19 °C	15 °C	2,1 l/m ²
Irailak 10, astelehena	20 °C	10 °C	- l/m ²
Irailak 11, martitzena	21 °C	6 °C	- l/m ²
Irailak 12, eguaztena	21 °C	6 °C	- l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.

Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 14:

PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

ZAPATUA 15:

MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

DOMEKA 16:

MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

ASTELEHENA 17:

PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

MARTITZENA 18:

GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05

EGUAZTENA 19:

ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

EGUENA 20:

MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 16..... Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46

Ertzaintza..... 943 76 53 40

Osasun Etxea..... 943 76 24 40

Asepeyo..... 943 76 16 43

Pakea..... 943 76 13 49

Angiozarko medikua..... 943 78 90 27

Antzuolako medikua..... 943 76 62 23

Odol emaleak..... 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak..... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea..... 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea..... 943 76 62 46

Udal Artxiboa..... 943 77 91 32

Igerilekuak..... 943 76 20 51

Kultur Etxea..... 943 77 91 58

Liburutegia..... 943 77 91 62

Kiroldegia..... 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza..... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia..... 943 76 14 92

Erregistroa..... 943 76 13 15

Jardun..... 943 76 36 61

Idolaz..... 943 76 65 08

Jubilatu Etxea. Bergara..... 943 76 21 40

Antzuolako jubilatu elk..... 943 76 62 71

Postetxea..... 943 76 26 85

Bedelkar..... 943 76 04 68

Akulu AEK..... 943 76 05 18

Udal euskaltegia..... 943 76 44 53

Bergarako notariatza..... 943 76 10 73

gutunak

SAN LORENTZOKO JAIK

Zenbait urte gure jai estimatuez gozatu barik egon ostean, aurren, auzoko eta lagunei esker, txiki zein nagusi elkartu gaituen egunaz gozatu dugu. Gure eskerrik beroenak ondorengo hauei: Arkupe eta Zapelaitz tabernak, Jam, Okipark, Manso ardoak, Kabutzia arraindegia, Bolintxo okindegia, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, Irurak margoak, Aquilino margoak, Tecnosistem, K-3, Lacor, Candy eta Gure Ametsa elkarteak. Eta bereziki Bergarako Udalari eta gurekin egon zineten gutzioi.

Batzordea

TORUNSA

Aurreko asteazken azalduko idatzia dela eta, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek hauxe adierazten dute: 1.- Idatzi mehatxagarri eta iraingarrien edukiarekin ez gatzat, eta lortu dezaketzen bakarria Torunsa-ko zuzendaritzaren eta langileen arteko harremana okertzea da. 2.- Ez gaude prest, bere kontura dabilen langile bati, bere arazoetan gainerako langileak nahasten uzteko, langileengan eta hauen familien-engan sortzen duen egonezinagatik. Arazo hauek mahai batean konpontzen dira, hitz eginez, gaizki ulertzeak ekidinez. Langileren batek edo batzuek, banakoaren arazoak beraien kabuz konpondu nahi badituzte, egin dezatela, baina gainerako langileak nahastu gabe eta ondorioak bere gain hartuz.

LAB, UGT eta CCOO

zorionak!



Amaia Alzelai
14an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Oihana.



Ainhoa Monterroso
17an 3 urte.
Urte askotarako!
Amama Antonia.



Angel Azkarate 'Errotatxo'
14an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jairo Remesal
16an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Beñat Bizente
16an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ione Urrea
20an 5 urte.
Urte askotarako!
Miren eta gurasoak.



Amaia Oregi
20an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maider.



Nerea Gonzalez
17an 8 urte.
Urte askotarako!
Familia guztia.



Martin Mujika
15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Beristain
12an 3 urte.
Urte askotarako!
Haritz eta Unai.



Ane Miren Muguruza
18an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Itziar Campos
14an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Laskurain
17an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Urreztzi
20an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Maite Eraña
19an 19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iholdi
14an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

oharrak

■ **1948an jaiotako enafaria** irailaren 29an Osintxuko Txuringo jatetxean. Osintxura joateko, autobusa aterako da frontoitik, 21:00etan. Izena ematea (6.700 pezeta) Euskadiko Kutxan.
■ **Odol-ematea** eguaztenez, hilak 19, Seminarioko lokalean, 18:30ean. Odol emaile berriak behar dira.
■ **Monja Zaharretan**, domeka eta jaiegunetan ez da mezarik izango arratsaldean irailetik aurrera.

jardunen agenda

■ **Jolasleku ibiltaria:** Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako jolasak. Irailaren 21ean Usondo parkean, irailaren 28an Udal pilotalekuan eta urriaren 5ean Espoioan.

Hurrengo alean, irailaren 21etik 27ra bitarteko enafaren zorion agurrak argitaratuko ditugu.



Amaia Madinabeitia
16an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak. Bereziki, Garazi eta Joanes.



Asier Madinabeitia
19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak. Bereziki, Garazi eta Joanes.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🔧 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Jokabidearen psikologiako kabinetea

Barne-herstura, depresioak, estresa, ume eta nerabeen arazoak, azterketa psikologikoa.

Ramon M. Lili 2, lehena
Orduetgia: 15:00-20:00
943 765 939 Faxa. 943 762 572



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Zura: arotzak eta etxegileak liburua gaur, 19:30-ean, aurkeztuko du Anaje Narbaizak osoko bilkuren aretoan. "Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" bildumako hirugarren lana da. Bilduma horrek galduta edo galtzeko zorian dauden lanbideetako lexiko, esamolde eta jakintzak jasotzea du helburu.

G. Zergatik zura gai bezala?

E. Beti gustatu izan zait zura. Gure lehenengo elementua izan da, umetako jostailuetatik hasita; edozer gauzatarako erabili izan dugu. Bestalde, etxean ere ikusi dut edozein konponketetarako derrigorrezkoa izan dela egur zati bat. Horrekin, eta egurra gaur egun zein planotara pasatu den ikusita, interesgarria iruditu zitzaidan egurraren inguruko lan hau batzea. Gainera, badira ofizio batzuk desagertzearen daudenak, nahiz eta ez bere osotasunean.

G. Bergaran aparteko garrantzirik izan du zurak?

E. Euskal Herri osoan garrantzi berdina izan du. Gai honetan ez nintzateke horren lokalista izango. Eta Euskal Herrikoa esatea ere, lokalista izatea da, Marokoko puntara joanez gero, han ere etxeetako oinarri moduan zura erabiltzen baitute. Nire ustez, zura humanitatearen lehengai nagusia dela bazter guztietan. Gero, tokian tokiko forma bat hartzen du.

G. Denboran noraino joan zara liburuan, zuraren garrantziaz jabetzeko?

E. Liburuaren sarrera historikoan, agiri aldetik, XVII eta XVIII. mendeak jasotzen dira, batez ere. Lehenagoko testigantzak jasotzea zaila da. Baina badaki-

ANAJE NARBAIZA

Zura: arotzak eta etxegileak liburuaren egilea

«Lehenago konstruktore eta arkitektoak izan ziren arotzak»



Anaje Narbaiza, liburuaren egilea.

gu, hemen, XV. mendetik atzera etxe guztiak egurrezkoak zirela, XVI. mendera arte. Egurra lehengai nagusia zen etxegintzan.

G. Zur asko egongo zen orduan.

E. Sasoian sasoian zegoen egurra erabiltzen zuten. Betiere, ondo osatutako egurra. Hor dago sekretua. Egurra basoan aukeratzen

zutenetik, etxea eraikitzeko erabiltzen zuten arte prozesu bat igarotzen zuten. Ez zen zuhaitza bota eta zuzenean eraikitzeko erabiltzen. Gainera egur mota bakoitzak bere lana zuten, eta lanaren arabera aukeratzen zuten egurra bera. Etxearen zein elementu egiteko erabili behar zuten, egur mota bat edo beste izan beharko zuten.

G. Arotzek egiten zituzten etxeak edota etxegile ofizioa zegoen?

E. Oso bereiztuta zegoen. Hainbat arotz arotzegian egoten ziren gauza txikiagoak egiten, eta, bestetik, baserri-arotzak ditugu, etxegintzan ibiltzen zirenak. Hastapenetan guztiak arotzak ziren, baina dokumentuen arabera, batzuek espezializazioerantz jo zuten etxegintzara, eta horiek, nolabaitean, lehenago arkitekto eta konstruktoreak izan ziren. Gaur egungo arotzaren kontzeptua atera behar dugu, eta horren orde arkitektoaren kontzeptua hartu behar dugu.

G. Zura, beraz, oso garrantzitsua zen.

E. Jateko izan ezik, gainerako gauzatarako erabiltzen zuten egurra. Ekonomia egurrak mugitzen zuten. Ezin da ulertu garai hura egur barik.

G. Gainbehera noiz dator?

E. Gainbehera ekonomikoa egur basoen agortzearekin batera dator, eta XIX. mendean guztiz galtzen da ekonomiaren oinarri hori.

G. Zuraren inguruko terminologia ere jaso duzu.

E. Bai. Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatiko bederatzigiz gizon edadeturi egindako elkarriketetatik eta dokumentuetatik jasoak. 450 inguru. Horietako hitz asko, dagoeneko ez dira erabiltzen.

«Ekonomia zurak mugitzen zuten, bera zen oinarri. Jateko izan ezik, egurra gainerako gauza ia guztietarako erabiltzen zuten»

Udalak ez du parke eolikorik nahi Irukurutzeta-Karakate lerroan

Parkea jartzeko "leku ezgaitzat" deklaratzeari eskatu dio Jaurlaritzari

Eusko Jaurlaritzak, uztailearen 11ko agindu baten bidez, hasierako onarpena eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialari. Planak parke eolikoa aurrez ikusten du Irukurutzeta eta Karakate artean. Hori horrela, eremu hori parke eolikoa egiteko bazter dezala eskatu dio Udalak Jaurlaritzari.



Elgeako mendilerroan haize errota jartzen ari zirenean.

JOSU GARAI

Ez da lehenengo aldia Udalak Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean jasotzen denari ezezkoa ematen diona. Maiatz eta ekain artean planaren aurrerapena jendaurrean izan zen, eta Bergaran lau alegazio egin zizkioten. Guztiak Irukurutzeta-Karakate mendilerroan parke eolikorik ez egitea eskatu zuten.

Orain, planaren aurrerapena baino ez zen dokumentu hari hasierako onar-

pena eman diote, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak uztailearen 11n emandako aginduaren bidez, hain zuzen.

Plan Sektorialaren arabera, 37 haize-errota jarriko dituzte Irukurutzetatik Karakateraino doan mendilerroan. Guztira 4,7 kilometro izango ditu parkeak.

Eguaztenean, osoko bilkura egin zuten udal agintariek. Han berretsi egin zu-

ten alderdi guztiak parke eolikoari ezezkoa. Eta eremu hori parke eolikoa egiteko bazter dezala eskatuko diote Jaurlaritzari.

EZEZKOAREN ARRAZOIAK

Udal Museologoak egindako txosten batean oinarritu dute, batez ere, ezezkoa Udalean. Txostenean jasotzen denez, Irukurutzetatik Karakaterainoko mendilerroan, Elosua-Plazentziako

Estazio Megalitikoa dago, garrantzi historiko eta kultural oso handia duen estazio megalitiko, hain justu. Eta parke eolikoak estazio megalitikoarekin bat egiten du neurri handi batean eta eremu zabalean. Hamabost monumentu daude estazio megalitikoan, horietatik bost Bergarako lurretan. Megalito horiek guztiak Neolito-Brontze arokoak dira (K.a. 3000-900), eta 1990-eko Euskal Kultura Ondarearen Legeak Monumentu Multzotzat jotzen ditu.

Arrazoi historiko eta kultural horietan oinarrituta, osoko bilkuran onartu zuten aipatutako guztia alegazio gisa Jaurlaritzara bidaltzea. Alegaziotarako epea luzatzea ere eskatu dute, plana abuztuaren 2an jaso baitzuten Udalean eta Jaurlaritzak hilabeteko epea baino ez duelako eman alegaziotarako. Bilkuran esan zuten, kontuan izanda, gainera, opor datak direla.

Iñaki Ibabe EHko zinegotzi aurrerantzean

Iñaki Ibabe EHko zinegotzi berria izango dugu aurrerantzean. Ibabek eguazteneko osoko bilkuran egin zuten karguaren zina. Horrela, Aitor Arantzabalek EHko zinegotzi kopuruan utzitako hutsunea beteko du.

Horrez gain, Martin Guridik, hori ere EHko zinego-

tzia, kargua utziko duela azaldu zuten osoko bilkuran. Lana dela eta, zinegotzi izateak eskatzen dituen lanak behar moduan ezin diutelako bete utzi du kargua. Haren ordez, Xabier Arregi, zerrendan hurrengoa, izango da, seguruenik, Guridi ordezkatuko duena.



Aitor Arantzabalen (eskumatik bigarrena) lekua beteko du Iñaki Ibabek.

Eraso txikia astelehenean Simon Arrietako Kutxan

Joan den astelehenean, hilak 10, gasolinaz beteta zegoen plastikozko ontzi bat agertu zen Kutxak Simon Arrieta plazan duen sukurtsalean.

Goizaldeko seiak aldera, herritar bat kutxazainera sartu zenean, ontzia ikusi eta Ertzaintzara deitu zuen.

Ertzaintzaren bi furgoneta hurbildu ziren Kutxako egoitzara eta ingurua sokaz hesi zuten, baita banketxe gainean dauden etxebizitzetako bizilagunak irtenarazi ere.

GASOLINA ETA SUZIRIAK

Kutxako iturrien esanetan, plastikozko ontzian hamabost bat litro gasolina zeuden, baita hainbat suziri ere. Horrez gain, kutxazaine



Gertakaria astelehenean izan zen, goizaldeko 06:00ak aldera.

txartelak sartzekoa silikonaz estalita zegoen.

Ordubetera, gutxi gorabehera, goizaldeko zazpiak aldera, Ertzaintzak hesia ireki zuen eta bizilagunak etxera bueltatu ahal izan ziren.

Kutxako iturriek esandakoagatik, duela hiru urte beste eraso bat izan zuten. Orduan, gasolina bota eta sua eman zioten kutxazainari, eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten sortutako sutea.

Gripearen kanpaina irailan eta urrian

Irailaren 17tik urriaren 31ra arte iraungo du. Herriko hiru tokitan jarriko dituzte txertoak: anbulatorioan, astelehenean egubakoitzera, ordua hartuta (txanda hartzeko 14:00etatik 17:00etara deitzea komeni da); Labegaraietako kiroldegian (irailaren 25ean, 11:30etik 13:30era), eta Osintxun (irailaren 27an, 11:30etik 13:30era).

Honako pertsonei gomendatu diete txertoa hartzea: 65 urtetik gorakoei eta ondorengo patologiak dituzten 65 urtetik beherakoei: bronkitis kronikoa, kardiopatia, diabete gozoa, giltzurruneko edo gibebeko gutxiegitasuna eta immunodeprimituak.

Informatika ikastaroak San Joxepe elkarte

Zabalik da, dagoeneko, San Joxepe erretiratu elkarteak antolatutako informatika ikastaroetan izena emateko epea. Ikastaroak erretiratuendako izango dira, egoitzako informatika gelan emango dira, eta izena emateko fitxak San Joxeperen egoitzan har daitezke, astelehenean egubakoitzera, 11:30etik 12:30era. Ikastaroaren hasiera, zein ikastaro emango diren eta ordutegia bera izena ematen duten lagunen arabera zehaztuko dituzte.



TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



ANCEPEK homologatutako diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak
Kalitatezko irakaskuntza

MATRIKULA ZABALIK

DAMKAR'T
Eibar. 943 12 15 18

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

Presoen aldeko tonbola eta odoloste dastatzea Muniben

San Martinek ekarriko dituzten berritasunen artean, bi Munibe plaza inauguratu berriari aurkituko ditugu. Batetik, presoekiko elkartasun tonbola jarriko dute plaza horretan, eta bestetik, odolosteak dastatzeko txosna. Azken hori orain arte San Martin plazan jarri izan duten arren, aurten Muniben egongo da.

Tonbolaren kasuan, Bergarako amnistiaren aldeko mugimenduak antolatu du. Helburua da presoen dispersioak haien senideei eragiten dizkien gastuak, neurri batean, behintzat, finantzatzen laguntzea. Bergaran zazpi preso daude. Bakoitzak, espetxean dituen gastuei aurre egiteko, 525.000 pezeta inguru behar izaten ditu, eta kopuru horri, familiakoek bidaietan gastatzen dituzten ia 6.500.000 pezeta gehitu behar zaizkio. Guztira, herriko presoen gastua hamar milioi pezetatik gorakoa da.



Odolosteak dastatzeko txosna Munibe plazan jarriko dute aurten.

Tonbola egubakoitzetik domekara arte egongo da irekita, eta 1.300 opari banatuko dira, herriko denda, taberna, jatetxe, elkarte, lantegi eta herritarrek emandakoak guztiak.

ODOLOSTE DASTATZEA

Zapatuan, odoloste dastatzea izango da Munibe plazan jarriko duten txosnan, 12:30etik aurrera. Herriko sei harakinek antolatu dute dastatzea, eta Xamatzeko

dantzarien ardurapean izango da. Horrez gain, txosna berean okela gisatu lehiaketan prestatutakoa dastatzeko aukera ere izango da.

Okela gisatuko lehiaketari dagokionez, hiru elkarrek eman dute izena, guztiak Bergarakoak; ez da Debagoieneko beste inor animatu. Hala ere, antolatzaileek aurreratu dute zalantzan diren herriko beste hiruk ere, seguruenik, parte hartuko dutela zapatuan.

Ausartu zaitez Bergarako gaztetxera sartzen

Lelo hori buru duela, gaztetxeko kideek San Martin jaietarako egitarau zabala antolatu dute. Gaur, egubakoitza, San Martin plazatik abiatuta kale antzerkia izango da, 20:30ean. Interruptus taldeak *Mesias dator* antzezlan eskainiko du. 23:30ean, gaztetxean, Mermaid eta Kañeria 13 taldeek kontzertua emango dute.

Bihar, zapatua, 13:00etan, herri txikiteoa egingo dute gaztetxetik abiatuta, eta 14:30ean, herri bazkaria izango da gaztetxean. Bazkarirako txartelak Pol-Pol, Arrano eta gaztetxean daude salgai, 1.000 pezetaren truke. Bazkaldu ondoren, herri jokoak izango dira. Horren ondoren, 19:00etan, kalejira errendikatiboa egingo da, eta 23:30ean, Zartateko, Non Demontre eta Batzuk taldeek kontzertua emango dute.

ARRI
Industri hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.

Mujika
guztegia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

iñarra
MASAJEAK

ZABALDU BERRIA

Ibargarai 30 (erreka aldera)

Masaje terapeutikoa

Kirol masajea

Zelulitisaren aurkakoa

Ultrasoinuak

Bibragailuak

Infragorri eta karbonodun sauna japoniarra

Zutikako solariuma

943 76 93 26



BANKINTER

%3,5etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

*Irekiera komisioa:
%1.
35 urte
bilarteraino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Berrigara

464 zenbakia.
2001eko irailaren 14a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Maitane Arizabaleta, Juan Martin
Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Arenas/Berrigara

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurkitzaile
Kulturako
saila

atrebentzia ezpada

Bikotekidia topatzeko iragarki bat jarriko baziñu, zela deskribiduko ziñuke zeure burua?



Aitor Delariberette

Ez neuke jarriko, baiña jartzekotan, sinpatikua eta lotsatixa naizela eta kirola eta parrandia gustatzen jatela.



Marisol Torres

Neska euskalduna, jatorra eta normala naizela jarriko neuke, beste barik.



Alicia Medina

Neska normala, sinpatikua eta irekixa naizela jarriko neuke.



Arantxa Zubizarreta

Ez neuke sekula be holako iragarkirik jarriko, seguru nago.



Iñigo Arzelus

Lotsatixa naizela, eta kirola eta parrandia asko gustatzen jatela.



Gaizka Jainaga

Kirolzalia eta sano samarra naizela. Igual, erromantikua naizela be jarriko neuke. Dana dala, ez neuke metodo hori erabiliko.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2001-2002 ikasturtea

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA
AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
UMEENDAKO FRANTSESA

Ikastaroaren hasiera:

urriaren 1a

Izena ematea: irailaren 28ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 18:00-20:00

943.76.30.55



Loramendi kirolak

www.loramendikirolak.com

RIP CURL



2NDSKY

San Andres eta Garibai kalean • ARRASATE

Autobus-liburutegia

Egubakoitz arratsaldean, **autobus berezia** iritsi zen plazara: **Xagaxarra, Donatoren tertulia** izenekoa, hain zuzen ere. Jaurlaritzak antolatutako kanpaina izan da bisita horren arrazoia, eta irakurzelatasuna bultzatzea du helburu. 12 eta 16 urte bitarteko 50 bat gazte txok bisitatu zuten autobusa. Hantxe, liburuak irakurri, bideoak ikusi eta ordenagailuetan aritzeko aukera izan zuten.



Eginoko aterpetxean Jardunekin

Euskara errefortzuetako taldean aritzen diren umeak Eginoko aterpetxean izan dira irailaren 3tik 9ra. Guztira 19 ume eta bost begirale egon dira. Irteera **Udalekuak** eta **Antxintxika** programen barruan sartzen da. Udalekuak programan gaztetxoena aritu dira, eta euskararen jarraipena egin diete. 11 urtekoak, berriz, Antxintxika programan aritu dira; ume horiek, DBHn hasiko direnez ikasten eta dena euskaraz ikasiko dutenez, euskarazko eta matematiketako eskolak jaso dituzte egunero. Baina ez pentsatu dena ikastea izan denik, jolasarako aukerarik ere izan dute. Ikusi, bestela, honako argazki hau!



Bergararik Estatu Batuetara

Oporrekin bueltak segitzen dugu oraingo asteen ere. Hona hemen herritar batzuek ekarri diguten argazkia. **Jose Mari, Eloi** eta **Luis** Estatu Batuetan izan dira abuztuan. Zazpi estatu bisitatu dituzte; tartean, Newarken egon dira Totonik Rodríguez bergararra bisitatzen. Totonik jatetxe bat dauka hantxe. Argazkian ikus daitekeen moduan, **Las Vegasen** ere egon ziren, eta horrelaxe jarri ziren argazkirako, hango neskekin.



LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



MITOR
TABERNA
Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69

2001-2002

EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINTZA

Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak.

EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa...

AUTOIKASKUNTZA gela.

ERRITMOAK

2 ordukoa (iraila-ekaina).

3 ordukoa (iraila-ekaina).

5 ordukoa

(iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).

Astean bi egunean

2 ordu eta erdi (EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke.

Galde ezazu!

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-13:00

Arratsaldez: 14:30-18:30

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 3tik 18ra.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA

Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net

UDAL
EUSKALTEGIAK



Zuk
ahal
duzu

MATRIKULA ZABALIK



BOLU SUKALDEAK

AENOR



Produktu zertifikatua



AENOR



Enpresa Erregistratua
ER-1184/2/99

2000 eguneko garantia. Aurrekontua konpromiso barik.

Bolu, 22-behea. BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

adituen esanetan

Erle-izurriak

Erle-izurriak nagusi bi arrazoirengatik gerta daitezke: loreetan nektar gehiegi izateagatik edo erlauntza asko egoteagatik. Erlauntza asko badira, normala da zatitzen hastea. Gertakari horri erlakumaldi deritzo. Jeneralean, erleek maiatzean edo ekainean egiten dute erlakumaldia eta zuhaixkak (txilarra, gaztainondo) dauden tokietan geroago heltzen da. Erlezainek erlauntzak garaiz handitzen ez badituzte ere, erle-izurriak izaten dira zenbaitetan horren ondorioz.

Erlakumaldia gertatzeko arrazoi nagusia erleen ugalketa da. Zenbaitetan, erlauntzak eztiz beteta egoten dira eta erleentzat lekurik ez dagoenean, erleek alde egiten dute. Hainbat egunetarako eztia hartzen dute eta, erlauntza uztean, sarreran erle piloak biltzen da. Erlekume guztietan erregina, erle langileak eta erlamandoak daude. Erlauntza uzten duen lehenbiziko erlekumea primarioa da eta jatorrizkoa, erlauntza hain zuzen, enborra izango litzateke.



MARTIN GARMENDIA

Albeitaria

«Erlauntza asko badira, normala da zatitzen hastea. Gertakari hori erlakumaldia izenez da ezagun»

kopuru handia "lan barik" dagoenean, erlauntza zati liteke. Horien eginbeharra sortzen duten erregina-jelearekin larbak elikatzea da. Era berean, erlekumeko erregina zahartzen hasten denean feromona gutxiago sortzen ditu. Besteak beste, erreginen errege-feromonak erlekumearen egonkortasuna du helburu eta feromona gutxitzen badoa, larritasun egoera sortzen da eta kasu horretan erregina ordezkatu behar izaten da. Ordezko erregina erlakumaldi epetik kanpo jaiozen da, udazkenean, jeneralean.

Bigarren mailako erlekumea sortzekotan, lehenbizikoa baino txikiagoa izaten da, eta erregina ernalduta barik eta obipositore funtzioa garatu barik egoten denez, erreginak pisu txikiagoa izaten du eta erlauntzatik urrun alde egiten du. Hirugarren eta laugarren erlekumek osatzen direnean erlakumaldiaren sukarra deritzona gertatzen da. Kasu horretan, lojikia denez, erlauntza argi eta garbi ahultzen da.

Bestalde, 4-10 egun bitarteko erle langileen

bergarako zuhaitzak



Erramua Irizar jauregiko lorategian.

Erramua

Laurus nobilis

Hamar edo hamabi metro nekez gaintzen dituen zuhaixka da. Hosto erorkorak ditu, luzeak, lantza formakoak, gainaldean berde ilunak eta azpialdean pixka bat argiagoak. Udaberri hasieran loratzen da (berde horixkak edo zurixkak) eta fruituak, oliba txiki antzekoak, udazkenean heltzen dira.

Erramua, jatorriz espezie mediterranearra izan arren, gure herrian urte askoan landatua izan den zuhaixka da; horren adierazle, Euskal Herrian zuhaixka horri erreferentzia egiten dioten txokoak daude: besteak beste, Ereñozu, Ereño,...

Euskal Herrian ereinotza era ezberdinetara erabiltzen zen. Saran, adibidez, bedeinkatutako erramu hostoak sutara botatzen zituzten, Hernanin etxe aurrean erretzen zituzten eta Garazin emazteek ile artean sartzen zituzten. Bergaran, aldiz, apirilko lehenengo astean, Erramu Zapatuko azoka egiten da eta ereinotzaz osatutako gurutzeak bedeinkatzen dira.

Erramua, jatorriz espezie mediterranearra izan arren, urte askoan landatua izan den zuhaixka da.

Inausketak ondo toleratzen ditu; horregatik, lorezaintzan asko erabiltzen da, alde batetik, hesi gisa (trenbidean, Ibarra atzealdean) eta bestetik, barkartua, apaingarri gisa (Errotalden, Arrizuriagan, Irizar jauregian...).


Ereinotza oso espezie usaintsua denez, hostoak sukaldaritzan erabiltzen dira, janariak gozatzeko. Horrez gain, sendabelar gisa erabiltzen dira, ezaugarri karminatiboak eta urdailerako tonikoak dituzte-eta.



Erlezainen hanka-sartzeengatik ere erle-izurriak gertatzen dira zenbaitetan.

Testua: Maitane Arizabaleta.

GARBIGAILUA
ETA GERO,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERDIN



DERJIN

Eskuzko lixiba egiteko lagungarriak egon dira, baina arropa garbitu eta lehortzeko lehen makina 1855ekoa da.

1940ko hamarkadan hasi zen garbigailua mundu zabaleko etxeetan ohiko tresna bihurtzen.

Debagoienean, Bergarako Mayc izan zen aitzindari garbigailuak egiten. •
Mayc da goialdetik betetzen diren garbigailu-ekoizle bakarretakoa.

Fagorren abiapuntua beste produktu batzuk izan ziren, baina gerora garbigailuak egiten hasi zen, betiere aurrealdetik betetzen direnetakoak.

Egun, bi etxe horiek ari dira eskualdean garbigailuak egiten. Bien artean 1.300 langile dituzte eta 40.000 milioi pezetako salmentak urtean.

Arabako Errioxako Moreda herrikua da jaiotzez, baiña mutikotan etorri zan Bergarara. Ezkonduta dago eta seme bat dauka. Aretxabaletan dihardu lanian, Kronitek enpresan, eta Aize Pe elkarteko presidentea da. Elkarteak zilarrezko ezteiak beteko ditu aurten.

San Martiñetako ekitaldi bat?

Tanborradia gustatzen jat.

Tanborradan parte hartu dozu sekula?

Ez. Bost bat urte daroiat elkarteko bazkide moduan, eta ez gara tanborradan irten.

Lagun arteko afaririk egitten dozue?

Bai, zapatuan. Aurten, elkartia beteta dagoenez, beste nunbaiten egin bihar...

Okela gisatu lehiaketan parte hartuko dozue?

Bai. Ia gisatu ona ataratzen jakun...

Sukaldari ona zara?

Egixa esateko, ez.

Zure espezialidadia?

Saiheskixak, ximendutan erriak.

Janari eta edari bat?

Kokotxak eta ardo ona.

San Martiñak, egunez ala gauez?

Egunez gehixago ibiltten naiz.

Sokamuturra ikustera juaten zara?

Ez, goizegi da. Nahixago dot lo egittia.

Parrandazalia zara?

Ez.

Parrandarako edari bat?

Kuba, Gin-Tonic... Baiña onena, ura.

Etxeratzeko ordurik jartzen jatzu semiari?

Oso gaztia da. 12 urte dauzka.

Soziedadian denbora luzian egoten zara?

Astian hiruzpalau aldiz juaten naiz, baiña ez dot denbora luzerik pasatzen.

Musa ala tutia?

Jose Vicente Marauri

Bixak.

Etxeko lanetan laguntzen dozu?

Gutxi.

Egindako azken oparixa?

Botilla ardo batzuk, lagun bati.

Eta jasotako azkena?

Erregetan jasoko neban, emaztiana.

Ze egin dozu abuztuan?

Saloun 10 egun egin dittugu eta gaiñerako egunak Errioxan, mahastixak zaintzen.

Ze albiste irakurri nahiko ziñuke egunkarixan?

Pakia dagoela Euskal Herrixan.

Irratixa ala telebista?

Telebista.

Programa bat?

Kirol emanaldixak. Atletismua gustatzen jat gehixen.

Atleta bat?

Michael Johnson fenomenua izan da.

Donostiako estropadak ikusi ziñuzen?

Ez, Errioxan egon nitzan astebukaeran.

Athletic ala Reala?

Athletic. Bixak be larri ibilliko die aurten.

Loterixan 200 millioi irabazi ezkeror?

Antzera jarraituko neban.


Biaje bat nora egingo ziñuke?

Italiara. Abioiari beldurra dotsat; bestela,

Estatu Batuetara juatia gustatuko litzatake.



Bergarako Udala



Begarako Udala
Lorategi Zerbitzuko 2
Ofizial kontratatzena
doa, lehiaketa-oposizio ireki bidez
eta behin-betiko kontratuarekin.

Lehiakideen baldintzak:
- Eskola graduatua, lanbide hezkuntza I edo pareko titulazio maila izatea.
- Euskera jakitea, lehen hizkuntza eskakizunari dagokion maila, ez derrigorrezkoa.

Instantziak:
Instantziak aurkezteko epea
2001eko urriaren 1ean, 13:30etan
bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2001eko irailaren 11an.

BIZKOTXOAK ERREILENOAK ETA TOSTOAK



San Pedro, 9 - Telefonoa: 761051
R. S. I. 209374 SS
BERGARA

Gozogintzan aitzindari.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikulua
Begarako oleo eta
lumaxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60



Udazken-neguko kolekzio berria

BASTER

Baita ezkontza, jaunartze eta ekitaldi berezietarako jantziak ere

NISSAN ALMERA TINO BERRIAK SUTAN JARRIKO ZAITU



2.665.000
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Drive Assist
N.B.A BALAZTAK



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65. aldibi@nortekar.com



Nortekar



Zure gogoko kirola egiteko behar duzun material guztia.

Hemendik aurrera, markarik onenak eta zerbitzurik profesionalena oso hurbil izango dituzu.

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE-MONDRAGON



KIROLA ZEURE ESKURA

Porsteko: ARRASATE-MONDRAGON



Aurten, umeen danborradaren antolaketan ikastetxeek parte hartu dute.

San Martinak 2001

Martiriorik ez da egongo, baina gainerakoan, ohiko egitaraua prestatu dute

Iritsi zaizkigu San Martinak! Eta San Martinekin, kontzertuak, azoka, danborradak, odoloste dastaketa, suzko erroberak... Era guztietako ekitaldiak aukeran. Aurtengoan, aipagarriena, ez dutela martirioaren antzezenik egingo, baina horren ordez beste ezustekoren bat prestatu dute.

DANBOR HOTSAK

Zapatu gauean egingo dute nagusien danborrada, eta umeena, berriz, domeka arratsaldean izango da. Azken bi aste hauetan jo ta su ibili dira denak entseatzeko. Nagusien danborradan zortzi taldek parte hartuko dute: Artatse, Zuloa, Lasai-Toki eta San Joxepe elkarteek, Xamatzek, Aritzetak, Urdiñek eta gazte talde batek. Azken talde horrek aurten parte hartuko du lehen-dabiziko aldiz. Guztira 200 bat danbor jotzaile arituko dira, eta 18 bat abanderatu: elkarteetako 16 bandera, ikurrina eta herriko bandera aterako dituzte danborradan. Guzti horietaz gain, Udal Musika Bandak ere parte hartuko du, nola ez, eta pieza hauek joko dituzte, danbor hotsek lagunduta: San Martinen martxa, Zuloa, Lasai-Toki, Pertxa, Pix Pol eta bukatzeko, plazan, San Martinen ereserkia joko dute.

Umeen danborrada domeka arratsaldean izango da. Hiru ikastetxeetako umeek parte hartuko dute, 90 bat ume guztira. Batzuk gudariak izango dira, beste batzuk danbor jotzaileak eta besteak karrozan joango dira: fraileak, japoniarrak, enperadorea, soldaduak... Txikienek ere parte hartuko dute. Antolatzaileen esanetan, ume mordo animatu da aurten danborra jotzera; azken bi asteetan, zintzo-zintzo joan dira egunero entseatzera.



Zapatu gauean, nagusien danborrada.

GURE BASERRIETATIK SAN MARTIN PLAZARA

Badira 24 bat urte San Martinetan nekazal produktuen azoka eta lehiaketa egiten dutenetik. Nekazal produktuak promozionatu eta baserriarrei bultzadaxoa ematea izan zen lehiaketa hau antolatzeke arrazoia, eta gaur egun ere, horixe da lehiaketaren helburua. Gazta, fruta, barazki eta lore lehiaketak jokatu dira, eta era guztietako baserriko produktuz beteko da San Martin plaza zapatu goizean.

Goizeko 10:00etan hasi eta eguerdira arte egingo da azoka San Martin plazan. Barazki lehiaketari dagokionez, 10 parte hartzaile etorriko dira, horietatik 3 bergararrak. Frutari dagokionez, berriz, bostek parte hartuko dute. Kategoria horretan ez da bergararririk izango. Gazta lehiaketan izango dugu parte hartzaile gehien, 33 hain zuzen ere, horietatik 3 Bergarakoak. Debagoieneko hainbat artzai ere etorriko dira: Oñatiko 5, Antzuolako 2, Arrasateko 1 eta Eskoriatzako beste bat izango ditugu lehian. Hiru kategoria horietan, honako sariak banatuko dituzte: irabazleari 50.000 pezeta emango diote, bigarrenari 40.000 eta 30.000 pezeta hirugarrenari. Gainera, fruta eta barazkien saillean, etortzeagatik 20.000 pezetako diru saria emango diete baserriarrei, eta 5.000 pezeta, berriz, gazta lehiaketara aurkezten direnei.

Lore lehiaketari dagokionez, nahiko arazo izan dituzte antolatzailuek. Bi kategoria bereizten dituzte: lore moztuen lehiaketa jokatzeko da alde batetik, eta bestetik, etxeko loreena. Erredakzioa ixterako orduan, etxeko loreen lehiaketarako inork ez zuen izenik emanda. Eta lore moztuen atalean, berriz, parte hartzaile bakarra zegoen.



Goizeko 10:00etan hasiko da azoka.

Egitaraua

OSTIRALA 14

- **19:00** Blitz-eko Match LEHIAKETA, Bergarako Xake taldearen egoitzan, Zabalotegin.
- **19:30** Anaje Narbaizak egindako *Zura: arotzak eta etxegileak* LIBURUAREN AURKEZPENA, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.
- **19:30** Bikoteen DANTZA SUELTOKO XVII. TXAPELKETA, Moises Azpiatzuren oroimenez, Udal Pilotalekuan.
- **23:00** Txuma Murugarrenen "Hegazkinen arima" disko berriko KANTUEN EMANALDIA Irla kalean.

ZAPATUA 15

- **10:00** Barazki, fruta, gazta, etxeko lore eta lore moztuen LEHIAKETA San Martin plazan.
- **10:00** OKELA GISATUAREN Bergarako II. LEHIAKETA, Munibe plazan.
- **10:00** Bergarako Hiria XAKE TORNEO IREKIA, autonomien arteko ESKOLAKO ETA JUBENIL MAILAKOA, Xake elkarteak antolatuta. Parte hartu nahi duten eskolako ume eta jubenil guztiendako, Ipintza II institutuan (Agorrosingo kirolgunean).
- **11:00** XI. San Martin PLATER TIRAKETA Aintzinako ABANKARGAZKO armekin, Ugarrizako merenderoan.
- **12:30** Bergarako ODOLOSTEEN DASTAKETA, odolosteak ematen dituzten harakinek antolatuta: Jose Jabier Igarzak, Sebastian Imazek, Jon Leturiak, Jose Luis Leturiak, Luis M. Rezolak eta Pello Urzelaik.
- **Goiz osoan:** Xafre eta Zaharra trikitilariak arituko dira.

■ **16:00** Panta Rhei taldearen Saraba KALE IKUSKIZUNA UMEENTZAT Fraiskozuri plazan.

■ **17:30** BONBA JAPONIARRAK umeendako San Martin plazan.

■ Ondoren

Bergarako KONPARTSAKO erraldoi, kiliki eta buruhandien KALEJIRA, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek lagunduta.

■ **19:00** XII. San Martin HERRI KROSA, herriko kaleetan zehar, San Martin plazan hasita.

■ **19:30** Lehen mailako afizionatuen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.

■ **22:30** NAGUSIEN DANBORRADA, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.

■ Ondoren

Mamba Negra orkestrarekin DANTZALDIA, San Martin plazan.

DOMEKA 16

- **08:00** DIANA, Udal Txistulari Bandarekin.
- **08:30** SOKAMUTURRA herriko kaleetan zehar.
- **10:30** Erreileno eta tostoi KOFRADIAKO KAPITULUA.
- **10:30** Kofradiei ONGIETORRIA Udal Pilotalekuan, eta San Martin plazarainoko desfilea, Udal txistulari Bandak lagunduta.
- **10:45** Udal korporazioaren atzetik, HERRI DESFILEA, Udaletxetik San Pedro elizaraino, MEZA NAGUSIRA, Udal Txistulari Bandak eta Udal Musika Bandak lagunduta.
- **11:45** Meza ondoren, DESFILEA San Martin plazaraino.
- **12:00** BATZAR NAGUSIA udaletxeko osoko bilkuren aretoan.
- **11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan. Udal korporazioa joango da, Udal Musika Banda eta

Udal Txistulari Bandarekin batera. Bergarako erreileno eta tostoi kofradiaren batzarrera etorritakoek ere parte hartuko dute.

■ **12:00** Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

■ **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, San Martin plazan.

Egitaraua

Aizepe. Martxa (XXV. urteurrena)

Alfredo Gonzalez Chirlaque

Victory. Obertura

J. de Haan

Conquest of paradise. Soinu banda

Vangelis

Copelia. Ballet

L. Delibes

San Martin. Euskal estapak

Miguel Gonzalez Bastida

■ **17:00** Profesional mailako PILOTA PARTIDUAK Udal Pilotalekuan.

Muruamendi-az-Hirigoien/Atxa-Jaio

Goñi II.a-Eulate/Xala-Rai

■ **19:00** UMEEN DANBORRADA, Musika

Eskolako Bandarekin. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar pasealekua, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro kalea, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.

■ **20:30-21:30** DANTZALDIA Irailerako 6 taldearekin San Martin plazan.

■ **22:00** SUZKO ERROBERAK Agorrosinen, Fuegos Artificiales Continental etxearen eskutik.

■ **23:00** DANTZALDIAREN jarraipena Irailerako 6 taldearekin San Martin plazan.

DOMEKA 23

- **10:00** XXXVI. San Martin TXIRRINDULARI LASTERKETA 19 eta 20 urtekoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako baliogarria. Irteera eta helmuga San Lorentzo auzoan izango dira.

GAUEZ, MUSIKA AUKERAN

Egubakoitzean, Txuma Murugarren; zapatuan, Mamba Negra eta domekan, berriz, Irailerako 6. Horiexek dira, besteak beste, aurtengo San Martinetan arituko diren musika taldeak.

Irala kalean eskainiko du kontzertua Txuma Murugarrenek, gaueko 23:00etan hasita. Murugarrenek datorren hilean kaleratuko du bakarkako bere bigarren diskoa "Hegazkinen arima" izenburupean, eta disko horretako kantuak eskainiko ditu egubakoitzean. Goiz hasi zen mutil hau musikaren munduan, eta hainbat taldetan aritu da ordutik. Duela bi urtetik, baina, bakarlari hasi zen, eta esan bezala, dagoeneko grabatu du bigarren diskoa. Lehendabizikoa, "Nire leihoak", Oihuka disko etxearekin argitaratu zuen. Bigarren hau, berriz, Soraluzeke Gaztelupeko Hotsak disko etxeak argitaratu dio.

Zapatuan Mamba Negra orkestraren txanda izango da. Nagusien danborrada bukatu bezain pronto hasiko da kontzertua, San Martin plazan. Duela 15 urte sortu zen Toledoko talde hau. Denerako musika eskaintzen dute, era honetako orkestrek ohi duten moduan: dantzarako musika, baladak, boleroak, pop musika, soinu bandetako piezak...

Bukatzeko, domeka arratsaldean eta gauean, Irailerako 6 talde tolosarra izango da gure artean. 1997an sortu zuten talde hori. Sei musikaririk osatzen dute Irailerako 6, denak ere beste talde batzuetan aritutakoak: Trabuko, Laiotz, Basajaun... Erromerietarako taldea da, eurek esaten duten moduan, "plaza taldea". Eta erromeria taldea izanik, denerako musika eskaintzen dute erromerietan: rocka, reggae-a, ska, country-a, jotak, rantxerak...



Camp dantzaldia, Mamba Negrarenkin.



Egubakoitz gauean, Txuma Murugarren.

Haurren heziketan jolasa denez garrantzitsu, Xipizaro ludoteka eskura daukazu!

3 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoendako

Zapatuetan Bergaran eta Osintxun: 10:00etatik - 13:00etara

Pintura eta marrazketa teknikak

Yoga

Buztina

Makramea

Dantza

Eta abar

Astebarruan: 17.15etik - 19:30era

Izena emateko epea:
irailaren 17tik aurrera

XIPIZARO

Informazioa:
943 76 23 76
666 684 364



BERGARAKO
UDALA



Mikel Goñi nafarrak sasoi onean dela azaldu du azken partiduetan. DV



Mikel eta Casado Bergara Hiria txapelketako azken irabazleak izan dira.

Mikel Goñi domekako pilota jaialdiko protagonista nagusia

Zapatuan, berriz, afizionatuen partidua Udal Pilotalekuan

Mikel Goñi nafarra pilotako izar nagusietakoa da, eta partidu bikainak jokatu ditu udako jaialdietan, zaleen gozamenarako. Domekan, Eulaterekin batera, Xala eta Rairen kontra jokatu du. Pilota jaialdia 17:00etan hasiko da.

Lehenbiziko partiduan Iker Muruamendiaraz-Sukia eta Haritz-Jaio bikoteak izango dira aurrez aurre. Bergarako zaleek ez dute aukera askorik izan Muruamendiaraz Udal Pilotalekuan ikusteko, joan zen urteko otsailaren 12an Bergaran profesionaletan debuta-

tu zuenetik. Domekan, esan bezala, Sukia izango da Ikerren bikotea. Antzuolarra ikuskizun polita eskaintzen ahaleginduko da, ziur egon.

Baina zalantzarik gabe jaialdiko bigarren partidua piztuko du ikusmen gehien. Mikel Goñi pilotazale guztien ahotan izan da azken urteetan, askotan pilotarekin zerikusia ez zuten kontuengatik. Oronozkoak partidu bikainak jokatu ditu udan, zaleen gozamenarako. Gainera, berak jokatu izan duen bakoitzean frontoiak bete-beteta izan dira. Aspek domekarako programatutako partidua berria da, ez delako aurrez jokatu.

Goñik eta Eulatek Xala eta Rai izango dituzte etsai. Xala 2. mailako txapeldunordea dugu (Berraondoren aurka galdu zuen finala), eta Raik eskuz banakako txapelketa aipagarria jokatu zuen. Burgosekoak Goñi II.a mendean hartu zuen eta ondoren Eugiren kontra galdu zuen.

ZAPATUAN AFIZIONATUAK

Bestalde, Udalak eta Bergara KEko pilota sailak antolatuta, afizionatuen mailako pilota jaialdia izango da zapatuan, hilak 15, Udal Pilotalekuan, 19:30etik aurrera. Lehenbiziko partiduan Aranzeta-Arrieta eta Mugu-

ruza-Bengoetxea bikoteak izango dira aurrez aurre. Ander Muguruza pilotari bergararra denboraldi txukuna egiten ari da eta ziur bihar partidu ona jokatu nahi izango duela bere zaleen aurrean. Bigarren partiduan Mikel-Casado eta Castellanos-Solozabal bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Mikel eta Casado gasteiztarak Bergara Hiriaren azken ekitaldiko txapeldunak izan genituen. Joan zen ekainaren 26an 22-18 emaitzarekin irabazi zieten Larraia eta Navarriori. Beraz, lehen mailako afizionatuak izango ditugu zapatuan Bergaran. Sarrrera doanekoa izango da.

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

PANA DE ROKUA
TATE TXEAL

Asteburuetan bertako
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73

Astelehenean zabalduko dituzte Agorrosingo barruko igerilekuak

Astelehenean, hilak 17, barruko igerilekuak zabaldu eta kanpokoak itxi egingo dituzte. Honako hau izango da igerilekuen ordutegia astelehenetik aurrera: lanegunetan 7:00etatik 21:00etara izango dira zabalik, zapa-tuetan 8:00etatik 19:00etara, eta domeka eta jaiegunetan 8:00etatik 14:00etara. Gimnasioak ere ordutegi bera izango du.

Barruko igerilekuak zabal-tzeaz bat, Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako igeri-keta ikastaroak hasiko dira. Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunak emanda-ko datuen arabera, «3 eta 4 urteko umeei zuzenduta-ko ikastaroak eta 5 urtetik 12 urtera bitartekoak ere harrera oso ona izan dute,



Azken egunotan hainbat hobekuntza egin dira igerilekuko sabaian.

eta eskaintza zabaldu egin behar izan dugu. Bestalde, 13 urtetik gorakoentzat ere hasiera eta hobekuntza ikastaroak izango dira».

Udako denboraldiari dagokionez, Iñaki Ugarteburu-ruk zera adierazi digu: «au-

rreko urteko ildotik joan da. Ez da izan onegia, uztailean espero baino eguraldi kas-karragoa izan genuelako, baina nahiko jende ibili da igerilekuetan. Bestalde, ura-ren kalitatea ere ona izan da, eta ez da aparteko ara-

zorik egon. Pozik gaude amaitzeaz dagoen udako denboraldiarekin».

Bestalde, urriaren lean igerilekuko taberna itxi egingo dute. Udalak ez du erabaki oraindik zer egin, baina ziurrenik lehiaketara aterako du berriz taberna-ren ustiapena.

KIROLDEGIA

Labegariaietako kiroldegia-ren ordutegia, berriz, hona-koa izango da: lanegunetan 9:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 22:30era. Zapa-tu, domeka eta jaiegunetan 9:00etatik 14:30era eta 15:30etik 21:30era izango da zabalik. Kiroldegian or-dua hartzeko interesa dute-nek 943 76 56 41 telefono zenbakira deitu dezakete.

Piraguismo ikastaroa kanpoko igerilekuetan

Udal Kirol Zerbitzuak eta Beti-Busti piraguismo taldeak 14 urtetik gorakoei zuzendutako eskimotaje ikastaroak antolatu dituzte. Azken urteotan izan duen harrera ikusita, ikastaroa bi astebukaeratan errepikatu-ko da Agorrosingo igerile-kuan: irailaren 22an eta

23an izango da lehen txan-da, eta hilaren 29an eta 30e-an bigarrena. Klaseak 10e-tatik 14:00etara eskainiko dituzte, eta monitorea-k Beti-Bustiko kideak izango di-ra. Izena ematea (3.000 pe-zeta bazkideentzat eta 3.500 gainontzekoentzat) Kirol Zerbitzuan egin daiteke.



Piraguismo ikastaroa 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialra

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa irekia domekan

Xake astearekin jarraituz, domekan, San Martin egunean, Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa irekia jokatu da Miguel Altuna institutu berrian, goizeko 10etatik aurrera. Bergarako Xake elkarteak antolatzen duen txapelketan maila bikaineko jokalariek bilduko dira. Besteak beste, Johan Cifuentes holandarra (nazioarteko maisu handia), Carlos Varas txiletarra (nazioarteko maisua) edo Georgiako Elizbar Ubilaba izango dira domekan Bergaran. Euskaldunei dagokienez, Mario Gómez bilbotarra edo Felix Izeta donostiarra ere faboritoen artean ditugu. Eta promesen artean, Iñigo Argandoña donostiarra, Paula Camara gasteiztarra, Mario Leon errioxarra edo Iñaki Rebole nafarra etorriko dira txapelketa ona egiteko asmoz. Miguel Angel Muela Xake elkarte arduradunaren arabera, Andres Díez Timofeva berga-



Martitzenean aldibereko partidak jokatu ziren San Martin plazan.

rarrak ere postu ona lortzeko aukera izan dezake. Guztira, 75 jokalar inguruk hartuko du parte Bergara Hiria torneoan. Esan bezala, txapelketa goizeko 10etan hasiko da eta 19:00ak aldera bukatuko da. Txapelketa nazioarteko suitzar sistema jarraituta jokatu da. Sari banaketa 20:00etan egingo da, Miguel Altuna institutuan bertan.

Bestalde, zapatuan, hilak 15, autonomia arteko

gazte mailako torneo irekia jokatu da Miguel Altuna institutuan, Boni Laskurainen. Zortzi urtetik 20 urtera bitarteko 200 bat partaide izango dira, arabarrak, bizkaitarrak, nafarrak, errioxarrak eta gipuzkoarrak tartean. Bezperan, egubakoitzean, 19:00etan, Zabalotegin jokatu den *blitz*eko lehiaketan sailkapena lortzen duten bergarar jokalariek zapatuan jokatzeko aukera izango dute.

Astean, xakearen inguruko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Xake elkartearen ekimenez. Helburua xakearekiko zaletasuna piztea da, eta Xake elkarte arduradunak pozik daude jasotako erantzunarekin.

KROSA ZAPATUAN

Zapatuan, San Martin herri krosaren XII. ekitaldia jokatu da herriko kaleetan. 14 urtera arteko gaztetxoek 1.700 metroko ibilbidea egin beharko dute. Lasterketa 18:00etan hasiko da, San Martin plazatik. Izena ematea ordubete lehenago egin beharko da plazan bertan. Bestalde, 14 urtetik 17 urtera artekoentzat 4.560 metroko zirkuitua prestatu dute, eta 18 urtetik gorakoei, berriz, 9.120 metro egin beharko dituzte. Nagusien proba 19:00etan hasiko da. Antolatzaileek herriko atletismozaileei proban parte hartzeko gonbidapena egin nahi diete.

Trikiti eskola

Noiz:

Urriaren 1etik
ekainaren 22ra

Non:

Kartzela Zaharrean

Egunak:

Panderoa: astelehen eta egubakoitzetan
Soinua: martitzen, eguazten eta zapatuetan

Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean
Soinua: 2.650 PTA hilean



Eskulan ikastaroa

Noiz:

urriaren 1etik
maiatzaren 27ra
arte

Non:

Kartzela Zaharrean

Ordutegia:

15:00etik

17:00etara


Prezioa urte guztirako:

5.000 PTA Jarduneko bazkideek; 6.000 gainontzekoek

Informazioa:

Jardun elkarte (Kartzela Zaharra)
943 76 08 19 / 943 76 36 61





ZINEMA ETXEAN
Tecnologia aurrerakoiena zure esku

Herran

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53



ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22



Feria,
danborradak,
suzko erroberak,
musika...

San Martinak
ospatzeko sasoia!

Ondo pasatu
jaixak!



BERGARAKO UDALA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Leioha eta mosaikoa kale berean daude.
Zein kale da?

galde debalde

- Zenbat lagun aurkeztuko dira zapatuko San Martin azokako gazta lehiaketara?
A- 10 lagun
B- 33 lagun
C- 35 lagun
- Nor izango da Goñi II.aren bikotea domekako pilota jaialdian?
A- Rai
B- Eulate
C- Sukia
- Zela du izena Edurne Azuara errodutzen hasi den film laburraren zuzendariak?
A- Iciar Bollain
B- Rodrigo Velasco
C- Asier Altuna



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

Aurreko aleko saria **Eden Gonzalez**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Edeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Soledadea**
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Betelu
1,5 litroko 3 botella ur

100 PTA!
(0,60 e.)

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Edurne Azuara film labur bat errodatzen ari da Urnietan

Edurne Azuara gazteak, *No temas el invierno* film laburra errodatzen dihardu Rodrigo Velasco zuzendari hasi berriaren aginduetara. Horrekin batera, *Hasiberriak* telesailan ere jarraituko du hastear dagoen denboraldian.

Suspentsezkoa. Horrela definitu du Edurne Azuarak errodatzen ari den film laburraren generoa. *Hasiberriak* telesailan kide duen Mañex Rekartek aurkeztu zion Rodrigo Velasco, film laburraren zuzendaria, eta, horrela, errodajearen «kasualitatez» sartu dela dio.

EDURNE ALA MARGA?

Edurne, *Marga* izango da, neska «mistiko eta poesia zalea». Istorioa Urnietako



Edurne Azuara *Hasiberriak* telesailako bi kideekin.

etxe batean gertatzen da, «etxe misteriotsu batean», Edurneren esanetan. Han bi mamu daude, «eta ni jabetu ez arren, nire poesiarren bidez etxeko bikote batekin harremanetan jartzen saiatuko dira». Bestalde, lan taldea oso profesionala dela esan du, eta zuzendaria aparta.

Horrekin batera, *Hasiberriak* telesailan ere jarraituko du Edurnek datorren denboraldian. Astelehenean, aireportuan grabatuko ditu hainbat eszena, izan ere, Lorena (Edurne) Dublainera doa oportretan bi hilabeterako. Gero bueltatzeko, noski.

Martxan da XI. Kirol Argazkien Lehiaketa

Abian da Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatu duten kirol argazkien lehiaketa. Lanak aurkezteko epea urriaren 24an amaituko da. Euskadin bizi den edozein zalek parte har dezake, eta gaia Kirola izango da. Lanak zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke, eta laborategiko edozein teknika-prozedura onartuko da. Mota bakoitzeko lau lan aurkez daitezke, eta udal txera bertara eramán edo bidali beharko dira. Erabakia urriaren 24an emango dute aditzera, eta kategoria bakoitzeko lau sari izango dira. Bestalde, Argizaiola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria izango da.

Parte hartze txikia baina maila ona pintura lehiaketan

Beart artisten elkarteak Udalaren laguntzaz antolatutako lehiaketara 13 lagun aurkeztu ziren joan den domekan. Antolatzaileen esanetan, parte hartze txikia izan da, iazkoarekin alderatuz behera egin du; hala ere, lanen maila ona izan dela gaineratu dute.

Hamahiru parte hartzaile-

leetatik lau Bergarakoak izan dira, eta gainerakoak inguruko herrietakoak, Arrasate, Donostia eta Debakokak, besteak beste. Hogeita hiru urtetik gorakoen artean, lehenengo saria Jose Ignacio Treku debarrak jaso zuen, bigarrena Eduardo Mendoza donostiarrak, eta hirugarrena Jone Telleria

bergararrak. Bestalde, herriko onenarendako sari berezia Maite Azkargortak jaso zuen.

Horrez gain, 23 urtez azpikoendako lehiakideen artean ere beste lau sari banatu ziren. Lehenengoa Gorka Untzueta bergararrak jaso zuen eta bigarrena Eluska Zabalo mondragoetarrak. Ez

zen hirugarren saririk banatu, ezta Bergarako onenaren saririk ere. Lehiaketako epaimahaiari dagokionez, Mari Paz Alustizak, Karlos Galarragak eta Oihana Garitanok osatu zuten.

Lehiaketan parte hartu zuten lanak ikusgai egongo dira Bearten egoitzan (Bolu kalea 45) irailaren 16ra arte.

ETXE PARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Moises Azpiazu eta bere ikasleak, 1980

Azken urteotako ohiturari eutsiz, egubakoitzean, hilaren 14an, Moises Azpiazu zenaren oroimenezko bikoteen dantza askatuko txapelketa jokatu da Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita, San Martin jaietako egitarauaren barruan. Aurtengoa XVII. ekitaldia izango da eta 15 bikote izango dira lehian, tartean Maite Lazkano

eta Asier Ena bergararrak, Euskadiko txapel-dunak. Bergaran beti egon dira maila bikaineko dantzariak, eta Moises Azpiazuk bere garaian egindako lana aipagarria da. Hainbat eta hainbat bikotek berarekin ikasi zuten dantzan, eta horren lekuko duzue goiko argazkia. Erretratua 1980. urtearen ingurukoa da eta Lezon aterata dago, bertako txapel-

ketan hartu baitzuten parte herriko hiru bikotek. Hor dira maisua eta bere ikasleak. Ezkerretik eskumara:

Goian: Joseba Aseginolaza, Moises Azpiazu, Edu Muruamendiarez eta Dani Azpiazu.

Aurrerago: Edurne Arzelus, Jaione Arana eta Aintzane Arana.

Argazkia: Aintzane Arana



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79




GUREN

PINTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak




Ondo
pasatu
jaiak!

San Juan, 1 • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91. Faxe: 943 76 08 04

Zuk kolorea eskatu eta guk eman.



Paretetarako, zorurako, altzariak margotzeko...



Koloreak sortzeko makina.


ZANGUITU margoak

Parket flotatzailea • Sintasola • Moksetak • Paper pintatuak

Irala z/g. Tel.: 943 76 19 54 BERGARA



Eskolara bueltan



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar mueble
sofa leku

■ Tel.: 943 79 15 03
■ Tel.: 943 77 14 92
■ Tel.: 943 71 10 12
■ Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com

grupoam@grupo-aeme.com